

BI ESKUTITZ

JOŠE'K ANTONIO'RI:

ADIZKIDE Antonio: Atzo irichi nuan erri ontara, ta gaur kucha miatu detanian, arraye pola! galtzik ederrenak orchen laga dizkiadala, gogoratu nak.

Badakik ondo, erri ontara zertara eldu naizen: nere andre-gaya ikustera; t'ikustaldi ontan, praka zarpatsu šamarretan nabaitzen bana-chiok galdua nak!

Izarri ezakek ba, nere eskutitzaren eskariya: biali zadazkidak praka eder oyek, Donostiyan erosiya, ta nere sanko, aztal t'iztarrei ondo antolatuak. Egingo nakaken mesedearen ordain, motel ta motel! ogei errialeko zuri bat bialiko diat.

Praketan zeukat uste biziya, nere arazo zail au erabakitzeko. Mutil ederra nazela, bazekiat; bañan gizontza, prakak dirala t'eztirala ezagutzen omen dek eta, arraye pola! ontanche enikek ajiatua aurkeztu nai.

Atzo bertan ikusi nian nere aita-giyurgaya. Gizon bapua dek, euskeldun morrozkote ederra; t'aitari begiratu-ta alabaren ichura atera banezakek, eztek makala izango nere andregai ori. Orrechek asko poztutzen nachiok. Bañan, nere pozak aketsa biar, t'onakochionek chorabiyatu nachiok iya. Galtzik ez!

Motel ta motel, aguro abil, biali zaazkidak lenbailen; arren ta arren eskatzen dik, *Joše'k*.

ANTONIO'K JOŠE'RI:

ADIZKIDE Joše: Larri abil, atraye pola! galtzik ezta. Lukainka šamarra itzala, banechekian, bañan orren kaskallu ta lodia, ez. Galtzetan uste, t'emen laga! A! Chaldan alena! Aziera charra dek ori,

ire arazua ongi bukatzeko, t'ain charra, charragorik, motel ta motel!, ezerchore ez.

Ire galtzak, ostatuan zan *Jiménez* erdaldunak gaur goizian berekin eramán dizkik. Beriak zirala-ta beriak, jaberik azaldu eztanian, ichu-ichuan sinistu ziyogu beriak zirala. Ederra egin dik, to!

Motel! galdua aiz. *Jiménez-ek* eramandako prakak, ez ik, t'ez nik, t'ez iñork eztizkit geyo ikusiko. Berrik bialtzeko astirik ez; ta ba-alda-kik ondo etorriko zaizkikan?

Eskeintzen dizkidak ogei errial; bañan banechekian, ik ogei errial eskeintzekotan, gauza zalla eskatuko ikidakala.

Motel ta motel! erotu adi nai dekan adobakiz, batez ere, *Jiménez-ek* ire prakakin andregai ori chautu ezakikan.

Agur, berri obiak biali.— *Antonio*.

Bata ta bestiaren ordeiz

DONOSTI

